

# txintxarri



## Jendea txunditu eta hunkitzeko gai

Jalgune elkarteak, hamaika lagunekin batera, kolore eta musikaz betetako emanaldia eskaini du / 8-9

TXINTXARRI

## Euskarari bultzada berria

2018an hizkuntza sustatzeko egingo diren ekintzak lantzen hasi dira LasarteTop jardunaldian / 6-7

Udalak Martin Berasategi sukaldaria omentzea erabaki du, Lasarte-Oriako izena zabaltzeagatik / 2

Euskadik irabazi du herrian jokatutako kadeteen selekzioen arteko saskibaloitxapelketa / 12



Gure betaurreko guztiak 2018 bildumakoak dira

[www.multiopticasgipuzkoa.com](http://www.multiopticasgipuzkoa.com)

**% des kon tua 30**

**EGUZKITAKO BETAURREKOEN bilduma BERRI GUZTIETAN**

ARRASATE • BEASAIN • BERGARA • DONOSTIA • ERRENERIA  
EIBAR • IRUN • ORDIZIA • TOLOSA

Kontsulta itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak. Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

Kale Nagusia, 15  
Tel.: 943 37 74 55  
**LASARTE-ORIA**

**MULTIÓPTICAS**  
lehen a zerbitzu optikoetan

# Berasategi omentzea onartu du udalbatzarrak

Martin Berasategiren omenez izendatuko dute Loidi parkea, eta han egingo diote aitortza publikoa. Halere, erabakiak eztabaida piztu du batzarrean: EH Bildu eta ADLOP abstenitu egin dira, eta horrelakoak erabakitzeke galdeketak eskatu dituzte

## Adrian Garcia

Martin Berasategi sukaldaria Donostian jaioa da, baina mende laurdena darama Lasarte-Orian lanean. Urte horietan guztietan lan zabala egin du herriaren alde, eta Martin Berasategi jatetxearen bidez lau haizetara zabaldu du Lasarte-Oriaren izena. Herriko merkataritza sustatzeko lanetan ere nahastu da. Horregatik guztiagatik, Jesus Zaballos alkateak aitortza egitea proposatu du aste honetako udalbatzarrean: omenaldi publikoa egiteaz gainera, Loidi parkeari Martin Berasategi izena jartzea. Aurrera atera da proposamena, baina ez aho batez. PSEk eta EAJk alde bozkatu dute (hamar boto), baina EH Bildu eta ADLOP Ahal Du Lasarte-Oria Pue de abstenitu egin dira (sei boto).

Jesus Zaballos alkateak argudiatu duenez, Berasategi nazioartean egin du ezaguna Lasarte-Oria. Izan ere,



Udal ordezkariak, eztabaidaren erdian, astearteko batzarrean. TXINTXARRI

erreferentziako sukaldaria da; urtero Michelin izar mordoia irabazten ditu. Egun zortzi ditu, kudeatzen dituen hiru jatetxegatik jasoa. Herriko Martin Berasategi jatetxeak hiru Michelin izan ditu. "2015ean TripAdvisor

atariko erabiltzaileek munduko jatetxerik onena izendatu zuten Lasarte-Oriakoa, eta herria mundu osoan ezagutarazi du gastronomiagatik", ohartarazi du Zaballosek. Horrez gain, alkateak gogora ekarri du

Bartzelonako hiru jatetxeri Lasarte-Oriari erreferentzia egiten dieten izena jarri diola: Lasarte, Oria eta Loidi.

Edonola ere, eztabaida piztu du gaiak udalbatzarrean. EH Bildu eta ADLOPek ez zuten zalantzan jarri Berasategi egindako lana, baina ez diote egoki iritzi aitortza egitea.

## Chourraut eta kiroldegia

Ezinbestean Maialen Chourrauten kasua azaleratu da. Rio de Janeiroko Olinpiar Jokoetan urrezko domina irabazi ondoren, udalak aitortza egin zion, eta udal kiroldegia piraguistaren omenez izendatu zuten. Halere, Arkaitz N a y a A D L O P e k o bozeramailearentzat kasua ezin daiteke alderatu. "Bata kirol arloan da, emakumezkoena gainera, eta hori beti bultzatu behar da. Bestea alor komertziala da".

Pablo Barrio EH Bilduko ordezkariak argi utzi du alderdiaren abstentzioa ez dagoela Berasategirekin lotuta. "Toponimiatik datozen izenak errespetatzearen alde gaude, herriaren eta hizkuntzaren memoria ondareak direlako". Gainera, Barrioren ustetan, kale izendegiaren aldaketa herritarrek beraiek erabaki beharko lukete. Horregatik proposatu zuen alderdiak kontsulta bat, baina ekimena ez da aurrera atera. "Guk Elizatze plaza eta Tximistarreta parkea izendatzeko horrela egin genuen", oroitarazi du zinegotziak.

EAJk aldeko botoa eman du, baina Jon Antxordoki bozeramaile jeltzaleak aukera aprobetxatu du Loidi parkearen egoera txarra nabarmentzeko. "Aitortza egiten bada, parkea behintzat txukundu beharko da". Horrez gainera, jeltzaleek salatu dute beste hainbat zonaldetan mantentze lanak egin behar direla, esate baterako, Plazaola bidearen inguruan.

## Alkatearen erantzuna

Zaballos alkateak ADLOPeko Nayari erantzun dio: "Ez da aitortza komertziala. Martin Berasategi joaten den tokira doala Lasarte-Oriaren izena eramaten du berarekin. Gauza bera egiten dute Maialen Chourrautek eta Antonio Mercero".

Bestalde, alkateak parkeen mantentze lanei buruz ere hitz egin du. Onartu du herriko zuhaitzak txukuntzeko lana badagoela, baina azaldu du gainerako zonaldetan konponketak egiteko prozedurak hasita daudela.

Horrez gain, beste gai batzuk ere jorratu dituzte udal ordezkariak: kirol laguntzen arloko diru laguntzak jasotzeko oinarriak aldatu dituzte; Jose Maria Urdanpilleta dedikazio osoko zinegotzi izendatu dute; Lourdes Acevedoren gain utzi dute Udaltzaingoa buruzagitzat; eta Nuria Fernandez egin dute bosgarren alkateordea.



TXINTXARRI

## Greba eguna irakaskuntzan

EAEko hezkuntza publikoko irakasleek, heziketa bereziko hezitzaileek, sukaldariak, garbitzaileak eta Haurreskolako langileek greba eguna izan zuten joan den asteartean, eta Lasarte-Oriako ikastetxeek ere bat egin zuten deialdiarekin. Hezkuntza egungo gizartearen ardatza dela aldarrikatu dute, eta urte hauetan guztietan sufritutako murrizketak salatu dituzte.

## Lasarte-Oria, Michelin hirien sarearen barruan

Hogei herrialdetako alkateak bildu ziren abendu hasieran Clermont-Ferrand Frantziako hirian, denak Michelin multinazionalaren bueltan. Michelin Hirien I. Konferentzia egin zuten, eta enpresa horren lantegiren bat edo zentro teknologikoren bat duten herriak gonbidatu zituzten. Horien artean egon da Jesus Zaballos Lasarte-Oriako alkatea. Azaroaren 29tik abenduaren 1era bitartean hiri jasangarri bat eraikitzeke proposamena inguruan eztabaidatu zuten bilkuran.

Lehenengo bilkura Clermont-Ferrand hirian egitearen arrazoia argia da: bertan jaio

zen Michelin. Orain, bigarren konferentzia egiteko egoitza bila daude, eta Gasteiz bere burua proposatu du. Lasarte-Oriak hautagaitza hori babestu du, eta ekimena prestatzeko laguntza eskaini du Zaballosek. Udalak aditzera eman duenez, "aukera paregabea" izango litzateke gisa horretako nazioarteko ekimen bat herrira ekartzeko. Beste hautagaia Guarulhos da, Brasilen.

## Hiri "gizatiarragoak"

Lehen bilkura horretan Michelin hirien sarea sortzeko nahia azaleratu dute, berrikuntza sozial eta teknologikoetako proiektuetan elkarlana bideratzeko. Dena helburu finko batekin: "hiriak g i z a t i a r r a g o a k e t a jasangarriagoak" bihurtzea, herritarren mesederako.

## Presoen aldeko errezitaldia, Gabonetan

Urtero moduan, Gabonetan egingo dute presoen aldeko Harresi Guztien Gaietik Errezitaldia. Aurten hiru saio prestatuko dituzte. Lehen hurrengo ostiralean izango da, abenduaren 22an. Aurrerapen moduan, *Hitz musikatuak* saioa egingo dute Furia Beltza tabernan, 20:00etan. Abenduaren 24an, berriz, Artizar tabernatik *Bertso-brindis ibiltaria* egingo dute, 19:30etik 20:30era. Azkenik, Errezitaldia abenduaren 30ean egingo dute, Manuel Lekuona kultur etxean, 19:30ean. Espetxeetatik jasotako testuekin osatuko dute VIII. Errezitaldia. Herritarrei gonbidapena egin diete ekimenean parte hartzeko.

# Zuzeneko musikak girotuta, kirol errepassoa

Zero-Sette akordeoi orkestrak, udaleko kultura departamentuaren laguntzarekin, 'Lasarte-Oriako kirolaren historia' diaporama antolatu du. Larunbatean izango da hitzordua, eta 25 kirol modalitateen errepassoa egingo dute, zuzeneko akordeoi doinuez lagunduta

## Txintxarri

Pasa den urteko arrakastari eutsi asmoz, zuzeneko musikak lagundutako argazki bilduma ikusteko aukera izango da larunbatean, Manuel Lekuona kultur etxean. Zero-Sette akordeoi orkestrak *Lasarte-Oriako kirolaren historia* izeneko diaporama antolatu du. Ekitaldia prestatzeko lan sakon bat egin eta gero, 413 istorio eta 510 argazki bildu dituzte, eta zuzeneko musikaz lagunduta, horiek erakutsiko dituzte kultur etxean.

Lasarte-Orian orain arte zeresan handia izan duten 25 kirol modalitateen errepassoa egingo dute bihar. Egun desagertuta dagoen automobilismotik hasi, eta golfa eta aerodromoko jarduerak bilduko dira argazkietan, baita herri kirolak, bola jokoa eta toka ere.

Horiekin batera, herrira "arrakasta olimpiko handiak"



Herriko kirol modalitate ezberdinak ezagutuko dira, musikak lagunduta TXINTXARRI

ekarri dituzten halterofiliaren, eskubaloien edota arraunaren irudiak ere ikusi ahal izango dira Manuel Lekuonan. Baita gaur egun Lasarte-Orian indar gehien duten saskibaloia eta futbola ere.

Antolatzaileek jakitera eman dutenez, diaporamak eskertza berezia egingo die kirol munduan ahalegin handia egin duten hamabost entitateri, eta baita kirol modalitate ezberdinetako 21 pertsonari.

## Hiru urterako hitzarmena sinatu du Semblante Andaluzek

Herriko beste hainbat elkarteren antzera, hiru urterako hitzarmena sinatu dute Semblante Andaluzek eta udalak

## Txintxarri

Lasarte-Orian antolatzen diren ekintzetan "inplikazio handiena" duen elkarte da Semblante Andaluz. Horrela jakinarazi du behintzat Jesus Zaballos alkateak. Udalarekin hitzartutako ekintzak egiteaz gain, Lasarte-Oriako hainbat elkarteren ekintzetan parte hartzen du Semblantek.

Elkarteak urte luzeetan "konpromiso handia" erakutsi duela azaldu du Jesus Zaballos alkateak, eta egiten dituzten ekintzak aurrera eramaten



Semblanteko Jose Perez. TXINTXARRI

laguntzeko, hiru urterako hitzarmena sinatu berri du udalarekin.

2017. urtean 13.727 euroko diru laguntza jaso du elkarteak. Horietatik 10.000 euro 25. urteurrenara zuzenduak, eta gainerako 3.727 euroak, urteko ekintzetarako.

2018rako, berriz, 3.779 euroko dirulaguntza izango dute, eta 2019an 3.832 euro jasoko dituzte udaletik.

Pozik agertu da Jose Perez, Semblante Andaluz elkartearen lehendakaria: "Lasarte-Oriako Udalak beti babestu gaitu, eta emandako laguntzarik gabe gure ekintzak aurrera eramatea ezinezkoa izango litzateke".

Jesus Zaballosek azaldu du elkartei egonkortasuna emateko sinatzen ari direla hiru urterako hitzarmenak.



Udala eta Gurutze Gorria hitzarmena sinatzen. TXINTXARRI

## Gurutze Gorria eta DYA diruz lagunduko ditu udalak

Asteartean sinatu zuen udalak hiru urterako hitzarmena Gurutze Gorriarekin, eta gaur sinatuko du DYArekin

## Txintxarri

Gipuzkoako Gurutze Gorriaren gastu orokorraren parte bat finantzatuko du Lasarte-Oriako Udalak, sinatu duten hiru urterako hitzarmenaren bidez. Urte bakoitzean 3.000 euroko laguntza izango du erakundeak, eta zenbait konpromiso izango

ditu herriarekin, besteak beste, Adinekoak Omenaldi Asteko jardueretan laguntza eskaintzea, Zerbitzu Sozialen erabiltzaile diren familiei elikagaiak banatzea, pobrezia energetiko kasuak kudeatzea, eta jubilatuei hilean bitan tentsioa hartzea. DYArekin gaur sinatuko dute.

## Lasarte-Oriako PSEk jostailuen bilketa solidarioa hasi du

Gabonetan izaten dute umeek opariak irekitzeko eta jostailu berriez gozatzeko aukera. Baina ez guztiek, tamalez. Horregatik antolatu ohi du urtero-urtero Lasarte-Oriako PSE-EEK jostailu bilketa solidarioa. Aurten ere Froilan Elespe PSEko egoitzan jasoko dituzte jostailuak, gero herriko gobernuz kanpoko elkarteera banatzeko. Herrian gehien behar dituztenei emango dizkiete. Abenduaren 11n hasi zuten bilketa, joan den

astelehenean, baina hilaren 20ra arte egongo da aukera jostailuak uzteko. Ondoko ordutegian joan ahalko da egoitzara ekarpenak egitera: goizetan 11:00etatik 13:00etara, eta arratsaldetan 18:00etatik 20:00etara.

PSEk dei egin die herritarrei jostailuak gehien behar dutenentzako uztera. Gainera, bilketa sustatzeko, parte hartzen duen pertsona orori txartel bat oparituko diete, zozketa batean sartzeko. Gabonetako Loteriaren azken bi zenbakiekin bat datorren txartela sarituko dute, bizikleta batekin.



**NOAOA**  
BIDAIAK

**IRTEERA MAIATZEAN**  
Noaok gidatutako talde bidaiak.  
Lasartetik irtenda.

T.: 943 373 613 • info@noaoa.eus • Hipodromo Etorbidea 10, Lasarte-Oria



Taloak, txistorra, gaztain erreak eta sagardoa dastatzeko aukera izango da datorren osteguneko San Tomas azokan. TXINTXARRI

## Gaztaina erre eta talo artean igarotzeko eguna

Urteroko usadioari eutsiz, San Tomas eguna ospatuko da datorren ostegunean, Okendo plazan. Txistorraz beteriko taloak, gaztaina erreak eta sagardoa dastatzeko aukera izango da lehenik, eta dantza eginaz emango diote amaiera egunari

### Txintxarri

Abenduaren 21a egun seinalatua izan ohi da euskal egutegian. Baserritar jantziei hautsak kendu, eta dotore jantzita irtenda, San Tomas eguna ospatzen da hainbat herritan. Lasarte-Oriaren erretoriko usadio da azoka eguna, eta aurten ere ez du hutsik egingo. Datorren ostegunean, arratsalde ederra pasatzeko aitzakiarik ez zaie faltako lasarteoriarrei.

17:00etan zabalduko ditu atekak, eta 20:30era bitarte, bertan salgai izango diren produktuak erosi, dastatu eta dantza egiteko tartea izango da.

Hainbat postu izango dira aurtengoan ere plazan. Batetik, Txistorraz beteriko taloena, eta danbolinean erretako gaztainen eskaintza izango da. Jatekoari edanaz laguntzeko, sagardoa ere banatuko du Ttakun Kultur Elkarteak.

Horrekin batera, Alboka abesbatzak eta Oriarte Institutuak ere postu bana jarriko dituzte, eta antolatzaileek jakitera eman dutenez, haurrentzako talo tailerra ere izango da. Etxeko txikiek taloa egiten ikasiko dute, eta prestatu ostean, bertan egin eta jateko aukera ere izango dute.

Ondoren, Ttiriki Ttarrakako trikitilarien erromeria, bertsolariak, Xumela korua eta plaza dantzako Erketz taldea eta Kukuka arduratuko dira herritarrek dantzan eta kantuan jartzeaz.

### Eguberrietako ekintzak

San Tomas eguna igarota, gabonetako ekintza izango dira egunotan haurrentzako.

Astelehenean, Xixukok Landaberriko haurrak bisitatuko ditu, eta asteartean, berriz, Sasoeta-Zumaburukoak. Horrekin batera, astelehenean ere talo tailerra egingo dute.



TXINTXARRI

## Hamabi urte eta gero, etxera

Lasarte-Oriara bueltatu da Pello Eskisabel, hamabi urtez Uzercheko (Frantzia) espetxean preso egon eta gero. Abenduaren 1ean, 15:00etan utzi zuten aske Junqueran (Girona), eta ia gauerdian iritsi zen herrira. Harrera beroa egin zioten Eskisabeli. Kale Nagusia legun eta ahaidez lepo zegoen, eta besarkada eta txalo artean egin zioten ongi etorria.



TXINTXARRI

## Araeta eta Txartel, gustukoenak

Araeta sagardotegia eta Txartel kafetegia izan dira aurtengo Pintxo bideko sarituak. Araetak masail eta onddo raviolia, patata trufatu zukuarekin, otarrainxka salteatu eta kinoa beltzarekin osatutako mokadua prestatu zuen eta hau izan da Ramon Roteta eta Jesus Nietok osatutako epaimahaiari gehien gustatutakoa. Herritarren bozka gehien jaso ditu, berriz, Txarteleko ukondo xehetuzko hojaldreak.

## Eguberrietako produktuak zozkatuko dituzte hil amaieran

Astelehenean abiatu zen Aterpearen Eguberrietako kanpaina, eta abenduaren 29an egingo da zozketa

### Txintxarri

Ate joka dira Gabonak, eta Aterpea merkatarien elkarteak Eguberrietako kanpaina martxan du astelehenaz geroztik.

Elkarteko bazkide diren herriko establezimendu

bakoitzak, produktuen kutxa bat jarri du zozketan, negozio horietan erosten duten bezeroak saritu nahi baititu.

Horrela, erosketak egin ostean, paper bat bete beharko dute bezeroek. Horrela, abenduaren 29an denda

bakoitzak bere zozketa egingo du.

Aterpeak Eguberrietarako prestatzen duen ekintza berezia izaten da, urtero, kanpaina hau.

### Apaindutako erakusleihoak

Eguberrietako kanpaina martxan jartzearekin batera, Lasarte-Oriako hainbat negoziotako erakusleihoak dotore apaindu dituzte saltzaileek.

Dendetarako sarreratan ere alfonbra gorri bat jarri dute.



Eguberrietako apaingarri bete dituzte establezimenduek erakusleihoak. TXINTXARRI



Bertako enpresako hainbat teknikari, mantentze lanetarako erabiltzen dituzten autoekin.

# Bertako igogailuak: mantentze-lan profesionalaren aldeko apustua

Ospakizunetan daude Bertako enpresan. Hiru urte beteko dituzte laster, eta badute zer ospatu: Euskal Herrian mantentze-lanak egiten dituzten enpresen artean gehien hazi dena da. Bizilagunen komunitate askok erabakitzen dute mantentze-lan enpresa aldatzea eta Bertakoren aldeko apustua egitea. Urtean, batez beste, 200 komunitatek egiten dute 10-15 urte arteko eskarmentua duten teknikarien aldeko hautua.

Hori da, gainera, Bertakok duen baliorik handiena: teknikariak. Eurek sortutako enpresa da. Beste leku batzuetan lanean jardun eta hango baliabideak ikusita, enpresa berria sortzeko erabakia hartu zuten pertsonak. Teknikari horiek 24 orduko zerbitzu erreala ematen

dute; hau da, larrialdietan bakarrik barik, abisu guztiak kontrolatzen eta premiak betetzen dituzte, astelehenetik igandera, 24 orduz eta urteko 365 egunetan.

Dena den, eguneroko lan onari esker, egiten duten mantentze-lan onari esker, matxurengatik jasotako abisuak oso gutxi dira. Teknikariek egiten duten lan onak, gerora dauden abisuen kopurua txikitzen egiten du, nabarmen.

**BENETAKO 24  
ORDUKO ZERBITZUA  
EMATEN DUTE,  
ASTELEHENETIK  
IGANDERA**

## Euskararen garrantzia

Bertakok duen beste balio garrantzitsu bat euskararen erabilera da. Lehen momentutik euskaraz jarduten dute: aurrekontuak egiterakoan, komertzialen bisitatan, administraziokoekin berba egiterakoan, kontratuak idazterakoan... Askok eta ondo baloratzen dute bezeroek euskararen erabilera.

Eta behin Bertako aukeratu ostean, bezeroek askatasun osoa dute nahi dutenean kontratua eteteko. Kontratu libreak egiten dituzte. Urtebetekoak. Bezeroak engainatu barik eta iraupen-konpromiso barik.

Ia hiru urteko ibilbidean, bezero askok Bertako aukeratu dute

eskaintzen dituen tarifengatik. Oinarritzko kontratua hileko 80 euro ingurukoa da eta arrisku orotakoa, hileko 100ekoa. "Prezio logikoak dira. Ez da normala Euskal Herriko enpresa batzuek 160 euro kobratzea arrisku orotako zerbitzuarengatik eta inguruko eskualdeetan prezio hau ia erdira jaitea, bertan ditugun enpresa askok gure tarifa merkeagoak erabiltzen dituzte. Hori bai, Euskal Herri inguruan ditugun eskualdeetan", diote enpresakoek.

## Larrialdi zerbitzua

Ia hiru urteko ibilbidea laburra da, baina nahikoa izan da lorpen arrakastatsuetara heltzeko: bezero guztiek dute igogailuaren larrialdi sistema telefonoetara lotuta eta guztiek dituzte LED argiak. Argi kontsumoa murrizteko automatikoki itzaltzen diren argiak, alegia.

Duela ia hiru urte sortutako enpresa izanda ere, bere zabalkundea itzela izan da beste bailara eta lurralde batzuetara. Gipuzkoan, Arrasaten eta Anoetan biltegiak ditu Bertako enpresak. Hori horrela, ematen duten zerbitzua oso azkarra da, profesionala eta gertukoa.

943-90 34 50 telefonoan eska daiteke informazioa eta aurrekontua. Beti ere, lehen berba euskaraz jasota.

## Hobekuntza teknologikoak igogailu zaharretan

**1-** Telefono zaharretako instalazioak berritzen dituzte. Hori horrela, uneoro daude kontaktuan bezeroekin. Berehalako erantzuna ematen diete abisuei eta ezustekoei.

**2-** Igogailua modernizatzeko aukera ematen dute. Aukera ematen duten maniobretan igogailuak monitorizatuta dituzte.

**3-** Igogailu zaharrak modernizatzeko eta berritzeko elektronika osoa eta motorra aldatzen dituzte. Era berean, ordaintzeko erraztasunak ematen ditu Bertakok. Igogailu batek arazo asko dituenean, ezinbestekoa da elektronika zati osoa aldatzea.

## Eskaintzen ditugun zerbitzuak, hilean 100 eurotik aurrera

- 24 orduko zerbitzua abisu guztientzat
- Pieza guztiak barne, orotariko zerbitzuan
- Iraupen-konpromiso gabeko kontratua
- Larrialdi telefonoa doan, instalazio guztietan
- Bakarrik itzaltzen diren LED argien instalazioa doan
- Efizientzia energetikoan oinarritutako ikuskapena



Lasarte-Oriako euskalgintzako ordezkariak, Lasarte Top jardunaldian, Mercero aretoan ateratako familia argazkian. TXINTXARRI

# Beste astinaldi baterako lanean

'Euskarak 365 egun' ekimenaren barruan 2018an Lasarte-Orian egingo diren ekintzak lantzen hasi dira. Euskararen I. Maratoi Erdia egin nahi dute, esperientzia berri bat probatzeko: 'belarriberrri'. Talde Eragilean parte hartzera dei egin diete herritarrei

## Adrian Garcia

Euskal Herrian euskararen ezagutzak gora egin du azken hamarkadetan, batez ere hezkuntzari esker. Erabileran neurtzen da, ordea, hizkuntza baten bizitasuna, eta alor horretan euskara oraindik erdal hizkuntzen itzalpean bizi da toki askotan. Horregatik, hizkuntzalari eta euskaltzale askok uste dute hiztunak motibatu behar direla; aktibatu, erabilera sustatzeko. Ikusita izazko Euskararen Maratoiaren emaitza onak, herriko euskalgintzak olatu hori aprobetxatzeko oinarriak finkatu

nahi ditu, 2018an Lasarte-Orian hizkuntza ohiturei beste astinaldi bat emateko.

LasarteTop Lasarte-Oriako euskalgintzaren topaketan hasi dira lanketa hori egiten. Udaleko eta Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariak, herriko ikastetxeetako zuzendariak, AEKko zuzendaria, Ttakun Kultur Elkarte arduradunak eta Maratoiko Zortzikoteko kideak izan dira bilera horretan, besteak beste.

*Euskarak 365 egun* ekimenaren lehenengo urrats bezala dute 2018. urtea, eta euskaltzaleak aktibatuzko baliatu nahi dute. Euskal Herri

osoan *11 egun euskaraz* ekimena egingo dute -izena zehazteko dago oraindik-, azaroaren 23tik abenduaren 3ra. Lasarte-Oriako ereduari jarraituz, 11 egun horietan *ahobiziz* eta *belarriprestez* bete nahi dituzte herriak.

Epe luzerako proposamenei ere heldu diete. Bide horretan, 2019. urtean mota guztietako

**EUSKARAZ ULERTZEN EZ DUTENEI 'BELARRIBERRI' GONBIDAPENA EMANGO DIETE**

entitateen babes neurriak izango dituzte helburu. Izan ere, hizkuntzaren normalizazioaren ardura partekatua da, pertsona eta entitateena. Era horretan, baldintza oztopatzaileak ken ditzatela sustatu nahi dute.

## Eta Lasarte-Orian zer?

Euskal Herrian egin nahi den egitasmoaren antzekoa egin zen iaz Lasarte-Orian, eta horregatik, herriko euskalgintzak beste mota bateko proposamena du buruan, *40 egun euskaraz* errenkaren "errepikapena izan ez dadin".

Alde horretatik, esperientzia berritzaile bat probatu nahi dute: *belarriberrri*. Orain arte bezala, *ahobiziaz* eta *belarriprestak* izango dira ekimenaren ardatza. Hau da, euskaraz hitz egitera konprometitzen direnak batetik, eta bestetik, euskara jasotzeko prest daudenak. Baina horiek beste eginkizun bat ere izango dute: 11 egun horietan *belarriberrri* gonbidapen txartela emango diote euskaraz ulertzen ez duen bati.


Gonbidapen horrekin, 30 orduko doako prozesu bat eskainiko zaio, gutxieneko

ulermen batera iristeko baliabideak jaso ditzen. Gainera, *ahobizi laguna* ere eskainiko zaie, praktika prozesu horrekin jarraitu ahal dezan. Mintzalagunaren antzeko pertsona bat izango da.

Ekintza horiek indartzeko, "dinamizazio ekintza alaiez" inguratzea proposatu dute, kasu honetan Euskararen I. Maratoi Erdia antolatuta. Erronka hasteko erreferentzia gisa balioko luke, izen emateak sustatzeko, eta, bide batez, egitasmo kolektiboa dela ikusarazteko. Hogei orduko dinamizazio lana egitea dute buruan, erronkak irauten dituen 11 egunean egunero hitzordu bat ezarrita.

## Talde Eragilea

*Euskarak 365 egun* ekimenaren alde lan egiteko gogoia duen orok Talde Eragilean izena eman dezake. Egitasmoaren helburuak eta filosofia herritarren artean zabaldu beharko dute kideek. Ttakun elkarteak koordinatuko du, baina egitura horizontala izango du. Izan ere, Euskararen Maratoian ikusienez, herritarren inplikazioak egin dezake proiektua arrakastatsua.



Pello Jauregi. TXINTXARRI

# "Euskaldunok talde baten indarra sentitu behar dugu"

**PELLO JAUREGI** 'IRTEN ARMAIRUTIK!' EGITASMOKO ZUZENDARIA

Euskararen erabilera bultzatzeko beharrezkoa da euskaldunentzako baldintza egokiak prestatzea. Horixe frogatu du Lasarte-Oriako 'Baietz 40 egun euskaraz' erronkak

**A. Garcia**

Euskal hiztunak aktibatzeke lanean eredugarria izan da Lasarte-Orian eginiko lana. Iaz egin zuten 40 egun euskaraz erronka: *ahobizi* eta *belarriprest* rola sortu zituzten, euskaraz jarduteko ingurumena errazteko. Eta emaitzek proiektuaren eraginkortasuna baieztatu dute. EHuko Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatean

irakasle Pello Jauregik (Pasaia, Gipuzkoa, 1958) zuzendu du ikerketa, eta hark plazaratu ditu emaitzak: erabilera 21,4 puntu

**"EUSKALDUNEN BIZITZA LATZA DA; ZALANTZAK DITUGU ETA KONFIATZA FALTA ZAIGU"**

igo da erronkaren eragin zuzenaren ondorioz. Baina ez hori bakarrik: hiru hilabetera emaitzek ia bere horretan eutsi diote. "Erabilera ohiturak mugitu direla frogatu dugu". Eskuragarri dago ikerketaren liburua. **la hiru puntu besterik ez da jaitsi euskararen erabilera erronkatik hiru hilabetera. Zein ondorio atera dituzu?** Ideia da ingurune egoki bat prestatu behar dela euskaldunak

bere hizkuntza ohiturak aldatzeko. Eta guk ingurune hori prestatu dugu: *ahobizi* edo euskaldunen inguruan *belarriprest* asko jarri ditugu, hau da, ingurune abegikor bat eraiki dugu. Horrela, euskaldunak errazago egiten du aurrera. Euskal hiztunek, normalean, baldintza egokiak dituztenean joera dute euskaraz egiteko. Guk baldintza horiek prestatu ditugu, eta jendeak astindu ditu bere baldintza ohiturak.

**Ingurune erdaldunean euskal hiztunak ez daki nori egin dakiokkeen euskaraz.**

Euskaldunek euskaraz hitz egiteko duten arazoetako bat da, solaskidea arrotza denean, ez dakitela euskaraz jakingo ote duen. Euskaraz hitz egiten badiot mindu egingo da? Ulertuko du? Zalantza pilo bat dauzkagu, eta horien aurrean, askotan, erosotasunera egiten dugu: erdarara jotzen dugu. Baina ikusten badugu jendea *belarriprest* bezala identifikatuta, ez dugu pentsatu behar, eroso sentitzen gara eta konfiantza dugu euskaraz hitz egiteko.

**Ekimen horrek, gainera, iraun duten ohiturak finkatu ditu, ezta? Batzuk elkar ezagutuko ziren agian, baina ez zuten jakingo euskaraz hitz egin zezaketarik.**

Behin pauso hori modu sozial batean eman duenean, jendea konturatu da solaskide horrekin euskaraz egin dezakeela, eta ohitura bezala finkatuta geratu da. Kasu askotan gertatu da: jendeak ez zekien norbaitek euskaraz ulertzen zuela *belarriprest*-eko txapa ikusi arte. Ohiturak aldatzeko, askotan nahikoa da pauso bat ematea, konturatu arte funtzionatzen duela. **Solaskide batek euskaraz aritzeko gaitasun egokia ez duenean, askotan gaztelerara jo ohi da. Erronkari esker, ordea, *belarripresten* solasaldi ia guztiak euskaraz izan dira.**

*Belarriprest* batzuk euskaraz ulertu bai, baina hitz egiteko gaitasunik ez dute. Baina erronkaren barruan, dakiten apur hori atera dute. Azken finean, hizkuntza simetriaren alde egiten dugu. Euskaraz

**"OHITURAK ALDATZEKO, ASKOTAN NAHIKOA DA PAUSO BAT EMATEA"**

lehenengo hitza egin dietenean, mintzatzeko gaitasun gutxi dutenek euskaraz erantzuteko joera izan dute.

**Euskaldunek askotan barne gatazka moduko bat izaten dute, euskaraz egin eta gazteleraz erantzuten dietenean, ez dakitelako euskaraz jarraitu edo hizkuntza aldatu behar duten.**

Bai, horregatik *belarriprestek* berebiziko garrantzia dute. Berria da kontzeptu hori. Izugarriko lasaitasuna ematen dio euskaldunari, barne gatazka hori desagertzen da eta. Kontratu sozial moduko bat da: aizu, egin iezadazu euskaraz, nahiz eta nik gero gazteleraz erantzun. Eta euskalduna lasai geratzen da, badakielako ez dela inor gogaitzen ari.

**Zure ustez, orduan, konfiantza falta al zaie euskaldunei euskaraz hitz egiteko?**

Bai, baina normala da. Oso latza da euskaldunon bizimodua. Etengabe egon behar gara pentsatzen solaskideak euskaraz badakien edo ez. Zalantza asko ditugu. Erdaldun batek ez ditu kezka horiek buruan. Horregatik, horrelako ekimen masiboak egin behar ditugu, talde baten indarra sentitzeko. Ikusi behar dugu jende pila dagoela euskara jasotzeko prest, *belarriprestez* inguratuta gaudela.

**Lau urtetik behin egiten da Euskararen Maratoia Lasarte-Orian. Zure ustez, zein da ekitaldi horiek egiteko denbora tarte egokia? Askok eginez gero jendea nekatu daiteke ere.**

Ideia antzekoa izan arren, komenigarria da zer bait aldatzea. Kanpaina txikiagoak egin daitezke, esaterako kuadrilletan, kirol elkarteetan... Orain arte indibiduala izan da ekimena, baina izan daiteke taldeka. Noizean behin egitea da komenigarria.

**Nola lagundu du Lasarte-Oriako ereduak ekimena Euskal Herri osora zabaltzen?**

Lasarte-Oriak eskaini du lan egiteko oso modu zehatza: komunikazio baliabideak, diseinua, *ahobizi*, *belarriprest*, txapak... Eta oso baliagarria izan zaie beste herriei, egitasmoa modu praktikoa gauzatu ahal izateko. Bestetik, egin dugun ikerketak eman dio balio erantsia, aukera izan dugulako datuen bidez baieztatzeko ekimena ez dela alferrikakoa. Balio du euskararen erabilpena sustatzeko.

# Edozertarako gai direlako, jai!

Urtea ezin hobeto bukatu du Jalgune elkarteak. Urtero legez, sorpresa koloretsuz betetako jaialdia antolatu du Manuel Lekuona kultur etxean. Herritarrek leporaino bete dute auditorioa. Jaialdiaz gozatu ez ezik, dantza ere egin dute Jalgunerekin

## Iñigo Gonzalez

Jalguneko kideak gai dira sekulako jaialdia antolatzeko. Gai dira Manuel Lekuona kultur etxeko aretoa betetzeko. Gai dira ikusentzuleak hunkitzeko, eta barre-algaraka jartzeko. Gai dira hilabeteotan tentuz eta maitasunez entseatutako guztia oholza gainera eramateko. Gai dira eguneroko errutinako enkargu eta zereginak egiteko. Gai dira bizitzaren momentu txikienak ere zukutzeko. Bai, gai dira. Edozertarako.

*Lasarte-Orian gai gara* leloa erabili dute aurtengo jaialdirako. Ausartuko gara gu ere esloganen bat proposatzen. Adibidez: *Edozertarako gai direlako, jai!* Jaia, festa, eta nolakoa gainera. Larunbat arratsaldeko bost eta erdietan hasi ziren Jalguneko kideak herria giroten, Dinbi Banda batukada taldekoen laguntzaz. Beheko kaletik abiatu ziren, eta erdigunea zeharkatu eta gero, Manuel Lekuona kultur etxera iritsi. Prest zuten oholza, eta ikusentzuleak arretaz begira, Jalgunekoek prestatutako sorpresak deskubritzeko irrikaz.

Esan dugu: Jalgune gai da edozertarako. Adibidez, dantzatzeko. Ederki, gainera.

## Dantzan, atsedenaldira arte

Horrela hasi zuten festa: oholza gainera igoz, musika topera jarriz eta gorputzak astinduz gozatu zuten. Tartean, 2017ko momentu onenak gogoratu zituzten, bideo batean: oporrak Extremaduran, Semblante Andaluz elkartearen 25. urteurrenaren ospakizuna, Apaceko lagunekin jolasten primeran pasa zuten eguna, eta beste hainbat.

Datorren urteko jaialdiko bideoan sartzeko moduko erakustaldia etorri zen ondoren. Superheroez eta hainbat pelikula famatutako pertsonaiez jantzita atera ziren oholtzara: E.T. estralurtarrak, *El Guardaespalda* (Bizkartzaina) edota *Titanic* filmeko protagonistez... Euren gorputz atalak bakarrik ez, imajinazioa ere jarri zuten dantzan oholza gainean.

## Semblante eta Xumelarekin

Jaialdiaren bigarren zatia Semblante Rociero eta Xumela koruetako kideekin hasi zuen

Jalgunek. Oholtzaz gain, abesti, kantu eta maitasun keinuak partekatu zituzten beraiekin.

Ez pentsa dantzatzeaz eta kantatzeaz nekatu zirenik aipatu bi koruekin taula gainean aritu eta gero. Beste sorpresa harrigarri bat zeukaten prest: binaka edo hirunaka, urrats batzuk aurrera eman eta mikrofono aurrera joaten hasi ziren, hainbat abestiren zatiak kantatzera eta aurreko hilabeteetan entseatutako koreografiak erakustera.

Arratsaldean zehar erabilitako dinamika jarraitu zuten beste behin: zuzeneko emanaldiak, momentukoak, aurrez grabatutako bideoekin nahastu. Film labur horiek hainbat irudi erakutsi zituzten, eta baita mezu indartsu eta balioak transmititu ere. Adibidez, honakoa: "Laguntza behar badut, eskatuko dut; laguntza gehiegik nekatu egiten du". Edo beste hau: "*Despacito-despacito* (pixkanaka-pixkanaka), gauzak egiteko gai gara".

Jai giroko arratsaldea biribildu zuten ostera, talde argazki erraldoia aterata. Txiki geratu zen auditorioko oholza.



Festa ez zen hasi kultur etxean, herriko kaleetan baizik. TXINTXARRI



Era guztietako koreografiak taularatu zituzten, *striptease* eta guztiz. TXINTXARRI



Ederki astindu zituen perkusio instrumentuak Dinbi-Banda taldeak; euren erritmora joan zen Jalgune kultur etxera. TXINTXARRI



Konfeti eta bandera koloretsu artean iritsi ziren jaialdiko protagonistak. TXINTXARRI





Jaialdia bukatu eta gero, Jalguneko kideek talde argazki erraldoia atera zuten guraso, senide eta lagunekin. Kultur etxeko auditorioko oholza txiki geratu zitzairen, irudi honetan ikus daitekeenez. TXINTXARRI



Ikusentzuleak ere ez ziren euren aulkietatik altxa eta Jalgunekoekin batera dantzatzeaz libratu. TXINTXARRI



Mikrofono aurrean ederki aritzeko gai direla ere erakutsi du Jalgunek. TXINTXARRI



Esan bezala, giro ederrean ekin zioten jaialdiari Jalguneko kideek, mozorro koloretsuak soinean zeramatzatela. TXINTXARRI



Guztiaren gaineratik, ongi pasa eta gozatzeko eguna izan zen larunbata. TXINTXARRI

# Eguraldiak zapuztu du Fernandezen estreinaldia

Enara Fernandez eskiatzaileak lehen aldiz lehiatu du Europako txapelketa batean, Austrian. Halere, eguraldi kaskarra dela eta lehiaketaren zati handi bat bertan behera utzi dute. 2019ko Munduko Txapelketa buruan, esperientzia pilatzea du helburu

## Txintxarri

Lehen aldia zen Enara Fernandez Campok Europan lehiatzen zuela. Espainian egiten dituen txapelketetan ez du aurkaririk gazte eskiatzaileak, eta proba egokia zuen joan den asteburukoa, bere maila Europako eskiatzaile zailduenekin alderatzeko. Hilaren 5ean abiatu zen Pitztal glaziarrera, Austriako Alpeetara, Tirolera. Entrenatzen eman zituen hiru egun, bere itsu-gidariarekin, Miren Andonegi donostiarrekin batera. Baina txapelketa hasi zenerako, larunbaterako, eguraldi txarrak astindu zuen ingurua eta bertan behera utzi behar izan zuten. Igandean eguraldiak soilik txanda bakarria utzi zuen jokatzeko.

Halere, Fernandez ez da esku hutsik itzuli Lasarte-Oriara. "Asko ikasi du esperientzia horretan", azaldu dio TXINTXARRI Mari Carmen Campok, eskiatzaile gaztearen amak. Beste kirolariak ezagutzeaz gainera,



Enara Fernandez eta Miren Andonegi itsu-gidaria, Austrian. MARI CARMEN CAMPO

paisaia "ikusgarrietan" eskia ahal izan du Fernandezek. Proba baliagarria izan zaio aurrera begira. Izan ere, 2019ko Munduko Txapelketa begiz jota du lasarteoriatarak. "Suitzian jokatu da. Hurrengo urtean

eraman nahi zuten Neguko Joko Paralinpiarretara, baina gazteegia da oraindik". 16 urte urte ditu.

Txapelketetan bat egin behar dute Fernandezek eta Andonegi gidariak, ahalik eta azkarren



Entrenatzeko aukera ongi aprobetxatu du behintzat Fernandezek. MARI CARMEN CAMPO

jaisteko, biretan akatsik egin gabe. Horretarako, kaskoan mikrofonoak eta aurikularrak dituzte, eta argibideak ematen dizkio Andonegik. Horrez gainera, kolore biziko peto bat darama, eta horrela, Fernandezek nondik jaitsi behar duen antzematen du.

Pirinioetan egiten dituzten txapelketetan emaitza oso onak lortu ohi ditu Fernandezek. Entrenatzera ere inguru horretara joan behar du, elurraren bila. Amak laguntzen du beti bidaia horietan. "Udaran Suitzara joaten gara ere, han entrenatu dezan". Horregatik zen proba interesgarria Europako txapelketako estreinaldia. "Toki horietan etxean bertan dute

elurra, eta egunero entrenatu ahal dute. Noski, maila oso altua dute. Gainera 20 urtetik gora izaten dute gehienek, eta Enara baino zaharragoak dira".

Edonola ere, Campok ez du presarik alabak lehiatu dezan. "Izango du denbora, orain ikasketak dira lehentasuna". Hurrengo bidaia bitartean, eta inguruko mendiak berriz ere elurtu zain, patinak eta gimnasioa du Fernandezek sasoia ez galtzeko entrenamenduak.

## ASTEBETEZ AUSTRIAKO ALPEETAN IZAN DA ENTRENATZEN ESKIATZAILE GAZTEA

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

<b>FUTBOLA</b>
<b>ERREGIONAL PREFERENTEA</b>
<b>Ostadar SKT - Allerru</b> Larunbata. 12:45. Michelinen.
<b>JUBENILEN OHOREZKO MAILA</b>
<b>Ostadar SKT - Lazkao</b> Larunbata. 15:30. Michelinen.
<b>JUBENILEN LEHENENGO MAILA</b>
<b>Ostadar SKT - Lengokoak</b> Larunbata. 17:15. Michelinen.
<b>KADETEEN OHOREZKO MAILA</b>
<b>Hondarribia - Ostadar SKT</b> Igandea. 10:00. Ondartza, Hondarribian.
<b>KADETEEN LEHENENGO MAILA</b>
<b>Ostadar SKT A - Aizkorri Goierri</b> Larunbata. 11:30. Michelinen.
<b>Aizkorri Goierri - Ostadar SKT B</b> Larunbata. 12:00. Aluztiza, Seguran.
<b>INFANTIL TXIKIA SAILKATZE FASEA</b>
<b>Ostadar SKT - Oiartzun</b> Larunbata. 13:00. Michelinen.

<b>LURRALDE MAILA</b>
<b>Lagun Onak - Ostadar SKT</b> Larunbata. 15:30. Garmendipe, Azpeitian.
<b>IBERDROLA LIGA</b>
<b>Reala - Santa Teresa</b> Igandea. 12:00. Zubietan.
<b>ARETO FUTBOLA</b>
<b>ESTATUKO HIRUGARREN MAILA</b>
<b>Muskiz - Antonio Aroztegia Eguzki</b> Larunbata. 16:15. Udal kiroldegia, Muskizen.
<b>GIPUZKOAKO LEHENENGO MAILA</b>
<b>Isu Leihoak Eguzki - Tellatuberri Zaldibi</b> Ostirala. 20:50. Kiroldegian.
<b>GIPUZKOAKO BIGARREN MAILA</b>
<b>Laskorain - Cecilia Frutadenda Eguzki</b> Larunbata. 18:00. Usabal kiroldegia, Tolosan.
<b>SENIOR GIPUZKOAKO LIGA</b>
<b>Trumoi Taberna Eguzki - Idiazabal BaiReformas</b> Igandea. 11:00. Kiroldegian.

<b>JUBENILEN GIPUZKOAKO LIGA</b>
<b>Mondrate - Bar Lasarte</b> Larunbata. 12:30. Arrasaten.
<b>SASKIBALOA</b>
<b>SENIOR LEHENENGO MAILA</b>
<b>Ostadar SKT - Antigua Luberrri</b> Igandea. 11:00. Kiroldegian.
<b>SENIOR HIRUGARREN MAILA</b>
<b>Ostadar SKT - Aloña Mendi</b> Larunbata. 18:00. Kiroldegian.
<b>ERRENDIMENDU JUNIORRAK</b>
<b>Ostadar SKT - Grupo EME Oiarso</b> Larunbata. 16:00. Kiroldegian.
<b>PARTIZIPAZIO JUNIORRAK</b>
<b>Aldapeta SUMMA - Ostadar SKT</b> Larunbata. 15:00. Chaminade kiroldegia, Donostian.
<b>PARTIZIPAZIO KADETEAK</b>
<b>Ostadar SKT - Bera Bera Balda</b> Larunbata. 09:30. Kiroldegian.

<b>PILOTA</b>
<b>PROFESIONALAK</b>
<b>Artola - Ibai Zabala</b>
<b>Arteaga II - Untoria</b> Igandea. 17:00. Logroñon.
<b>ESKUZ BANAKA LEHEN MAILA</b>
<b>Azkoitia - Intza</b> Igandea. 10:30. Ametsa trinketa, Iruran.
<b>ESKUZ BANAKA BIGARREN MAILA</b>
<b>Behar Zana - Intza</b> Larunbata. 09:30. Gaska trinketa, Donostian.
<b>ERRUGBIA</b>
<b>OHOREZKO B MAILA</b>
<b>Babyauto Zarautz KE - Real Oviedo</b> Larunbata. 16:00. Asti, Zarautzen.
<b>EUSKAL LIGA</b>
<b>Funes - Babyauto Zarautz KE/ Beltzak RT</b> Larunbata. 16:00. Funesen.
<b>18 URTE AZPIKOA</b>
<b>Babyauto Zarautz KE/ Beltzak RT - Bera Bera</b> Larunbata. 12:00. Asti, Zarautzen.

<b>16 URTE AZPIKOA</b>
<b>Babyauto Zarautz KE/ Beltzak RT - Bera Bera</b> Larunbata. 10:30. Asti, Zarautzen.
<b>10 ETA 12 URTE AZPIKOA</b>
<b>Federazioko jardunaldia</b> Igandea. 10:00. Michelinen.
<b>IGERIKETA</b>
<b>INFANTILAK, JUNIORRAK ETA ABSOLUTUAK</b>
<b>Gipuzkoako Kluben Kopa</b> Larunbata eta igandea. Egun osoa. Usabal kiroldegia, Tolosan.
<b>MASTERRAK</b>
<b>I. Gipuzkoako Open Txapelketa</b> Larunbata. 10:00. Legazpin.
<b>JUDO</b>
<b>SENIOR MAILA</b>
<b>Espainiako Kopako jardunaldia</b> Larunbata. Egun osoa. Madrilan.

# Horrelako planekin, etorkizuna beste era batera ikusten da.

CA-REN GEROKOA, BANAKAKO BGA E AURREIKUSPEN-PLANAK

Egiten duzun ekarpenaren arabera,  
eskaintzen dizkizugun hiru opari  
hautako bat aukeratu ahal izango duzu.

5.000 €  
**MARTIKO**  
**Gourmet sorta**  
% 0,24 UTB

Foile-bloka:  
2 ahatearenak + 2 antzararenak  
Ahatea:  
2 konfit-izter + 1 urdaiazpikoa  
Arbequina oilba-olio birjina estra:  
½ l-ko lata bat  
Gozokia:  
1 piku-gozokia + 1 sagar-gozokia

3.000 €  
**JATA Zukugailu**  
**elektrikoa**  
% 0,26 UTB

INOX altzairuan, abiadura  
handikoa, ez labaintzeko  
sistema eta desmontagarria  
erraz garbitu ahal izateko.

1.500 €  
**ENERGY**  
**Bluetooth**  
**Music Box**  
% 0,32 UTB

Kalitate handiko soinua,  
kablerik gabe eta berriz karga  
daitheken iraupen luzeko  
bateriarekin.  
Erraz sinkronizatzen da eta  
aukera ematen du bozgorailutik  
bertatik deiel erantzuteko.

Hobaria beste  
BGA Eetatik  
intsuldaketak  
egiteagatik.

**CA CRÉDIT AGRICOLE**  
**GEROKOA, EPSV INDIVIDUAL**

Borondatezko Banakako Gizarte-Aurreikuspeneko Erakundea

Hobariak kapital higigarriaren etekintzat hartzen dira eta atxikipenak egin behar zaizkie; opariak, berriz, gauzazko etekintzat hartzen dira.  
Bankoa, S.A. sustatzailea da eta Crédit Agricole Bankoa Gestión SGIC, berriz, Crédit Agricole Gerokoa, BANAKAKO BGA Eren kudeatzailea da.

**CA bankoa**  
CRÉDIT AGRICOLE



Ezkerreko irudian, lagunarteko txapelketan aritu diren lau selekzioetako jokalaririk, elkarrekin, giro ederrean. Eskuinekoan, berriz, Judith Navarro herritarra, baloia eskuetan, kontraerasoa gidatzen, TXINTXARRI

## Euskadik irabazi du lagunarteko txapelketa

Punta-puntako saskibaloia eskaini dute kadete mailako Euskadik, Nafarroak, Galiziak eta Asturiasek asteburuan. Judith Navarro lasarteoriatarrek Euskadirekin lehiatu du, ederki gainera; lagunarteko txapelketa zakuratu du, hirutik bi norgehiagoka irabazita

### Iñigo Gonzalez

Euskadik ez du jai hartu zubian. Lagunarteko giroan jokatu da txapelketa asteburuan, baina kantxara irten eta konpetitzen hastean txipa aldatu eta serio lehiatu du. Hirutik bi neurketa irabazi ditu, eta txapelketa ere bai. Jokalarien artean, herritar

askorentzat ezaguna den aurpegi bat: Judith Navarro gaztearena. 8 zenbakia bizkarrean eta baloia eskuetan, etorkizun handiko kirolaria dela erakutsi du, etxean.

Nafarroak, Asturiasek eta Galiziak ere hartu dute parte txapelketan. Sei partida jokatu dituzte lau selekzioek: lau

larunbatean, eta azkeneko biak igandean.

Ostadar SKTren saskibaloialorak antolatu du kirol ekitaldia, Lasarte-Oriako Udalaren eta Euskadiko Saskibaloifederazioaren laguntzarekin. Hiru urte daramatzate Endika Marrahik eta enparauek maila

oso altuko saskibaloia ekartzen herrira: infantil mailako neska 2015ean, kadete mailako mutilak iaz, eta kadete mailako neska, aurtun. Jende askok kanpora joateko aprobetxatu du egun hauetan, baina, halere, harmailek itxura ona hartu dute asteburu osoan zehar.

### Partidak eta emaitzak

Euskadik eta Galiziak jokatu zuten txapelketako aurreneko norgehiagoka, larunbat goizean. Oso orekatua izan zen neurketa, baina azkeneko laurdenean beste martxa bat sartu eta garaipena eskuratu zuen Euskadik. Ordezkoen aukian ekin zion neurketari Judith Navarrok; bigarren laurdenean kantxaratu zen aurrenekoz, eta baloi bat lapurtzeaz gain bi puntu lortu

zituena, pare bat jaurtiketa libre saskiratuta. Arauzko 40 minutuak jokatuta, honakoa islatzen zuen markagailuak: 45-56, Euskadiren alde. Goizeko beste partidaren, Asturiasek eta Nafarroak neurtu zituzten indarrak. Lehenengoek irabazi zuten, 59-53.

Arratsaldean, Asturiasek aurka aritu zen Euskadi, eta irabazi egin zuen, 56-45. Galiziak ere bai: 57-62, Nafarroaren aurka. Azkenik, igandean, Galiziak 65-54 irabazi zion Asturiasi, eta Nafarroak 65-70 Euskadiri.

Bestalde, Eñaut Buiza saskibaloijokalaririk infantil ACB minikopako aurreko fasea jokatu zuen asteburuan, Gipuzkoa Basket taldearekin. Norgehiagoka irabazita, ACB minikopa jokatu du otsailean, Kanaria Handian.

## Errugbian, herritik kanpo

Lasarte-Oriako hainbat jokalarik gozatzen dute errugbian, herritik kanpo. Ohorezko Mailan lehiatzen du Jon Ander Puertasek, Hernanin. 33-0 irabazi dute asteen, Getxoren aurka. Ohorezko B mailan, aldiz, kuadrilla ederra dabil Babyauto Zarautz taldean: Ander (irudian) eta Xabier Rekondo, Adrian Apaolaza, Ritxar Yurramendi, Xabier Prieto, Unai Urruzola eta David Vega. Durangorekin neurtu dituzte indarrak, eta 45-7 irabazi dute.



## ZORION AGURRAK



**June**  
Zorionak June! Muxu pila aitaxo, amatxo eta familia osoaren partetik.




**Maite**  
Zorionak ama! Hain gazte eta lirain izaten jarrai dezazula! Senarraren eta semearen partetik, muxu handi bat!



**Libe**  
Zorionak guapixima!!! Ondo disfrutatu zure hamarkada berria. Hamar muxu denon partetik.



**Oiana**  
Zorionak Oianiiii!!! Libratuko zinela uste zenuen akaso?? Zure eguna primeran igaro izana espero dugu, muxu potolo bat!



**Maitane**  
Zure haurtzarora zurekin eramaten baduzu ez zara inoiz zahartuko. ZORIONAK!!!



**Unax**  
Zorionak, asko maite zaitugu, aitaxo eta amatxoren partez, muxu handi bat.



**Eusebio eta Mariluz**  
Zorionak aitona eta amona zuen urtebetetzean Eneritz, Eñaut eta Laia iloben partetik.

## Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; bi bide dituzu Txintxarriren bidez zoriontzeko:

## Internet

Txintxarri.eus-en  
txintxarri.eus/zorionagurrrak eta Bidali zure zorion agurra formularioa bete.  
Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta ostiralean Txintxarri paperean.

## Posta elektronikoa

Mezua bidali  
txintxarri@txintxarri.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua. Ez ahaztu irudia atxikitzeaz.

Osteguneko 16:00ak arte jasotako zorion agurrik bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

## GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala, 15 GANDARIAS-URIBE  
Larunbata, 16 DE MIGUEL  
Igandea, 17 DE MIGUEL  
Astelehena, 18 ORUE  
Asteartea, 19 DE MIGUEL  
Asteazkena, 20 LASA  
Osteguna, 21 GIL

**EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00**  
ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52  
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49  
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51  
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74  
GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29  
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67  
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

**GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00**  
Echeveste Elosegui: Elkano Kalea 9, Hernani/ 943 55 20 87

**Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira.**  
Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera ([www.cofgipuzkoa.com](http://www.cofgipuzkoa.com)).

## TELEFONOAK

**UDALAREN TELEFONOAK:**  
ERREGISTROA: 943 371 629  
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184  
KIROLDEGIA: 943 376 182  
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 943 376 181  
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179  
KIUB: 943 361 605  
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621  
MUNTERRI AEK: 943 372 863

**LARRIALDIKO TELEFONOAK:**  
OSASUN ZENTROA: 943 007 960  
DYA: 943 464 622  
GURUTZE GORRIA: 943 363 953  
UDALTZAINAK: 943 362 442  
ERTZAINZAK: 943 538 840  
SOS DEIAK: 112

## JAIOTAKOAK

**Ethan Soriano Buron.** Abenduaren 8an.  
**Alai Carballes Palacios.** Abenduaren 7an.  
**Miren Arrizabalaga Mendez.** Abenduaren 1an.  
**Amets Arrizabalaga Mendez.** Abenduaren 1an.  
**Alex Zabala Gonzalez.** Abenduaren 1an.

## HILDAKOAK

**Dolores Cabello Martin.** Abenduaren 9an.  
**Isabel Barquilla Barrado.** Abenduaren 7an.  
**Maria Milagros Armendariz Sanz.** Abenduaren 7an.  
**Carmen Ruiz Pereda.** Abenduaren 5ean.  
**Josefina Muñoz Martin.** Abenduaren 3an.  
**Laureano Barbero Delgado.** Abenduaren 2an.

## OHARRAK

**Eskuekin trebatu, ikasi eta jakin! tailerra**

Amaraun Klubeko HH5 eta LH2 maila arteko gaztetxoek *Eskuekin trebatu, ikasi eta jakin!* tailerraz gozatuko dute. Eskujuolasak, malabarak, zeinu hizkuntza, masajea, txotxongiloak... hamaika ekintza egingo dituzte.

Bi saio ezberdin izango dira, bata astelehenetan eta bestea asteartean. Biak Anbutegi gaineko 2. solairuko hitzaldi aretoan, 17:30etik 19:00etara izango dira.

Asteleheneko saioak urtarrilaren 15ean hasi eta otsailaren 5ean amaituko dira; astearteko saioen

lehena urtarrilaren 16an izango da eta azkena otsailaren 6an.

Tailerraren matrikula 13 eurokoa da. Ttakuneko bazkideek berriz, 10 euro ordaindu behar dute.

Izen-emateak Ttakun elkartearen, aisia@ttakun.eus edo 695 785 392 zenbakian egin daitezke.

**EHPra irteera**

LH3 eta LH6 maila arteko gaztetxoek BECen egiten den Eguberrietako Haur parkeko atrakzioetan ederki gozatuko dute abenduaren 27an, Gazte Klubaren eskutik.

Goizeko 9:30ean Lasarte-Oriatik atera eta 18:30ean bueltatuko dira.

Hori dela eta, gaztetxoek bazkaria eta merienda eramane behar dute.

Irteeraren prezioa 27 eurotako da; Ttakuneko bazkideentzat, 24 euro. Ordainketa metalikoz edo txartelarekin egin daiteke bulegoan, baita Kutxabank-eko 2095 5048 18 1061552351 kontu korrante zenbakian transferentzia eginez ere. Transferentziaren ziurtagiriaren kopia aurkeztu behar da Ttakunen.

Izena emateko Ttakun elkartera hurbildu, aisia@ttakun.eus helbidera mezua bidali edo 943 371 448 zenbakira deituz egin daiteke.

**Intza Kirol Elkartearen bazkide izateko izen emateak**

Gerturatsen ari da Intza Kirol Elkartearen bazkideen Ohiko eta Ez Ohiko Batzarra, eta zuzendaritza batzordeak adierazi du ireki dela bazkidegaien izena emateko epea.

Elkartean dagoen irakarki taulan daude eskaera egiteko inprimakiak, Kale Nagusia 8 helbidean. Inprimaki horiek bete eta elkartearen bertan aurkeztu daitezke. Bazkide berriek izena emateko epea urtarrilaren 15ean amaituko da.

**Odol-ateratzearen egun aldaketa**

Lasarte-Oriako odol emaleen elkarteak ohartarazten du, hilabete honetan azken astelehena Eguberri eguna izanik, odol-ateratzearen eguna aurreratzen dela. Hilabete honetako hitzordua, beraz, abenduaren 22ean, ostirala, izango da.

Beti bezala Osasun Zentroan eman ahal izango da odola, 17:30etik 20:30era. Anima zaitetzeko, odola ordezkatzeko da eta odol falta dago! Odol emaleen elkartetik dei egin diete herritarrei Gabonetan ere ospitalean gaixo daudenengan pentsatzeko.

KOMIKIA



AZOKA TXIKIA

**ETXEBIZITZA**  
**ERRENTAN EMAN**  
 Ainhoa taberna alokatzen da Lasarte-Orian. Kokaleku ona. 691 646 204.  
 Auto eta motoak gordetzeko garaje marra alokatzen da, Esperantz plaza. 659 021 945  
**ERRENTAN HARTU**  
 Alokairuko etxe baten bila nabil. Nahiago dut Lasarte-

Orian, baina Zubietan edo Usturriben ere izan liteke. 630 682 716.  
 Etxe txiki baten bila gabiltza. 603 194 658  
**LANA**  
**ESKAERA**  
 Pertsona helduak zainduko nituzke orduka, egun osoz, gauez edo asteburuetan. Garbiketa

lanak ere egingo nituzke. Esperientzia eta erreferentziak ditut. Telefonoa: 671 763 558  
 33 urteko neska euskalduna. Haur, nagusi edo laguntza behar duen edozein pertsona zaintzeko prest Tolosaldea bailaran. Telefonoa: 625 70 98 39  
 Pertsona zaharrak edo haurrak zaintzeko, eta garbiketarako eskaintzen

dut neure burua. Telefonoa: 637 160 734  
 Emakumea eskaintzen da interna modura pertsona adinduak edo etxeok lanak egiteko. Telefonoa: 671 908 616  
**HEZKUNTZA**  
**ESKAERA**  
 Pertsona bat behar dugu oposizioak prestatzen

laguntzeko, Osakidetzako mantentze lanetarako. 679 560 170


ESKELAK

**ESKELAK JARTZEKO:**  
 Txintxarri erredakzioan  
 943 37 14 48

Txintxarri: doan eta euskaraz Lasarte-Oriako etxe guztietan

- Hileta egunean eskela txintxarri.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Txintxarri paperean 90€
- Eskela mota guztiak Txintxarri paperean + txintxarri.eus-en: 90 €
- Eskela mota guztiak paperean: 80 €

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:00	12:10	12:15	12:20
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

www.txintxarri.eus

**Argitaratzaileak**  
 Ttakun Kultur Elkarte  
 Geltoki kalea 4  
 20160 LASARTE-ORIA  
 G-20407557

**Erredakzioa**  
 Nerea Eizaguirre, Inigo Gonzalez,  
 Maddi Noriega eta Adrian Garcia.

**Publizitatea**  
 Arantxi Zulaika.

**Laguntzaileak**  
 Unai Muñoa, Gorka Lasa,  
 Ane Labaka, Mailu Arruti,  
 Asier Odriozola, Gorka Alvarez,  
 Jexux Artetxe, Maider Galardi,  
 Mikel Yarza, Nerea Segura eta  
 Aizpea Amas.

**Informatikoa**  
 Asier Aztiria.

**Administraria**  
 Nerea Garziarena.

**PUBLIZITATEA**  
 Ttakun Kultur Elkarte  
 Geltoki kalea 4  
 Tel.: 943 37 14 48 (106)  
 publizitatea@ttakun.eus

**EGOITZA NAGUSIA**  
 Ttakun Kultur Elkarte  
 Geltoki kalea 4  
 Tel.: 943 37 14 48 (104)  
 WhatsApp: 688 68 35 10  
 txintxarri@txintxarri.eus

**Inprimategia**  
 Zerua Multimedia, S.A.

**Lege Gordailua:** SS-513/94  
**ISSN:** 1134-0053  
**Tirada:** 8.000 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA  
 UDALA

LAGUNTZAILEAK



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
 ETA KULTURA SAILA  
 Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Gipuzkoako Foru Aldundia

# AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENA ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

## OSTIRALA 15

### URNIETA Antzerkia

Ados Teatroak Dublindarrak antzerkia eskainiko du. Sarrera, 5 euro. Sarobe, 19:30ean

### ANDOAIN Emanaldia

Xabi Solano Maiza eta hainbat musikaririk trikitilari guztiei omenaldia egiteko asmoz emanaldi berezia prestatu dute. Sarrera, 12 euro. Bastero Kulturgunea, 21:30ean

## LARUNBATA 16

### LASARTE-ORIA Diaporama

Lasarte-Oriako kirolaren historia diaporama eskainiko da. Zero Sette akordeoi orkestrak musikaz lagunduko du. Gonbidapena beharrezkoa da. Gonbidapenak eskuratzeko azken eguna da gaur: goizeko 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Manuel Lekuona, 19:00etan

### USURBIL Ipuin musikatua

Badut ipuin musikatua haurrentzat. Antxomolantxa Elkarteak antolatua. Aginagako ludoteka, 11:30ean.

### USURBIL Jostailu Erabiliaren Azoka

Jostailu Erabiliaren Azoka antolatu du Hitz Ahok, Udarregi Ikastolako Guraso Elkarteak. Pilotalekua, 11:00etatik 13:00etara.

### USURBIL Ipuin musikatua

Gorputz higienea clown saioa umeentzat, DYArean eskutik. Antxomolantxa Elkarteak antolatua. Aginagako ludoteka, 17:30ean.

### URNIETA Tuba Jaialdia

Euskal Herriko tuba eta bonbardino-jotzaileak bilduko dira. Gabonetako doinuak eskainiko dituzte. Eguraldi txarra eginez gero, kontzertua Saroben izango da. San Juan plaza, 18:00etan

## IGANDEA 17

### LASARTE-ORIA Bertsolaritza

Berto zaleek 2017 urteko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finala zuzenean ikusi ahaliko dute. Ttakun eta Earra Berto Eskolak antolatua. Ttakunenea, 11:00etatik



**LASARTE-ORIA Udal Musika Eskolako ikasleen Gabonetako kontzertua.** Udal Musika Eskolako ikasle eta irakasleek Gabonetako kontzertua eskainiko dute. Eguberriko doinuak izango dira nagusi, baina doinu klasiko eta ezagun ugari entzuteko aukera ere izango dute bertaritzen direnek. Manuel Lekuona kultur etxea, 19:00etan

### LASARTE-ORIA Kontzertua

Alboka Abesbatzak aurtengo Gabonetako kontzertuan Oiartzungo Lartaun abesbatza izango du lagun. Gabon doinuak eskainiko dituzte. Brigitarren komentua, 12:30ean

### USURBIL San Tomas Azoka

San Tomas azoka ospatuko da. Goizean zehar, Inguruko babarrun zein sagardo ekoizle partikularren arteko lehiaketa izango da. 12:30ean, Ixabel Agirresarobe ipuin kontalariak *Neguko zopa* kontakizuna eskainiko du. Pilotalekua, 11:00etatik 14:30era

## ASTELEHENA 18

### URNIETA Gabonetako aste musikala

Lourdes Iriondo Musika Eskolako kideen kontzertua. Gonbidapena behar da. Astearte eta asteazkenean ere ordu berean emanaldiak izango dira. Sarobe, 18:00etan

## ASTEARTEA 19

### LASARTE-ORIA Irakurle txokoa

Irakurle txokoko kideek Uxue Alberdik argitaratu berri duen *Jenisjoplín* eleberria aztertuko dute egilearekin batera. Ttakunenea, 18:00etan

### LASARTE-ORIA Bertsolaritza

2017 urteko Bertsolari Txapelketa

Nagusiko finala aztertuko dute Uxue Alberdiren laguntzaz. Ttakunenea, 20:00etan

### USURBIL Mahai ingurua

Espetxea eta umeak mahai ingurua egingo da. Olatz Lasagabaster eta Patxi Uranga presoak haur bat izan dute. Espetxe batean umea hazteak dakartzan problematikez, are gehiago dispertsioa tartean delarik eta, oro har, guraso edo senideak kartzelan duten umeek nola bizitzen duten egoera aztertuko da. Hizlariak: senideak, Iñaki Barrutia (psikologoa), Arait Zubimendi (Izar etxera! Plataforma) Sutegi, 19:00etan

## ASTEAZKENA 20

### LASARTE-ORIA Kontzertua

Udal Musika Eskolako Gabonetako kontzertua izango da. Manuel Lekuona, 19:00etan

## OSTEGUNA 21

### LASARTE-ORIA San Tomas

San Tomas eguna ospatuko da Lasarte-Orian. Janari postuak, txerria, musika eta dantza izango dira arratsalde osoan zehar Okendo plazan. Okendo plaza, 17:30etik aurrera

### URNIETA Gabonetako aste musikala

Lourdes Iriondo Musika Eskolako kideen kontzertua. Gonbidapena behar da. Sarobe, 17:30ean

## ZINEMA

### LASARTE-ORIA

#### MANUEL LEKUONA

**The Square (JBGA)**  
Ostirala: 22:00.

**Deep el pulpo**  
Igandea: 17:00.

**Canción de Nueva York**  
Igandea: 19:30.

#### USURBIL

#### URBIL

### Star Wars: Los últimos Jedi

Ostirala: 16:00, 17:00, 17:00, 18:15, 19:00, 19:00, 20:00, 21:25, 23:00, 00:40.  
Larunbata: 16:00, 17:00, 17:00, 18:15, 19:00, 19:00, 20:10, 22:35, 00:50.

19:00, 20:00, 21:25, 22:00, 23:00, 00:40.  
Igandea: 16:00, 17:00, 18:15, 19:00, 20:00, 21:25, 22:00, 23:00.

**Asesinato en el Orient Express**  
Ostirala: 15:50, 20:10, 22:35, 00:50.  
Larunbata: 15:50, 20:10, 22:35, 00:50.

**Coco**  
Ostirala: 16:15, 17:00, 18:00, 19:00.

**Larunbata:** 16:15, 17:00, 18:00, 19:00.

**Igandea:** 15:50, 20:10, 22:35.

**Ostirala:** 16:15, 17:00, 18:00, 19:00.

**Larunbata:** 16:15, 17:00, 18:00, 19:00.

**Igandea:** 16:15, 17:00, 18:00, 19:00.

Igandea: 16:15, 17:00, 18:00, 19:00.

**El gran desmadre**  
Ostirala: 22:55.  
Larunbata: 22:55.  
Igandea: 22:55.

**El secreto de Marrowbone**  
Ostirala: 01:00.  
Larunbata: 01:00.

**Liga de la Justicia**  
Ostirala: 21:15.  
Larunbata: 21:15.  
Igandea: 21:15.

**Perfectos desconocidos**  
Ostirala: 15:45, 17:45, 20:45, 22:00, 00:10.  
Larunbata: 15:45, 17:45, 20:45, 22:00, 00:10.

**Ostirala:** 16:05, 19:40, 22:10, 00:40.

**Larunbata:** 16:05, 19:40, 22:10, 00:40.

**Igandea:** 16:05, 19:40, 22:10.

**Ostirala:** 15:45, 17:45, 20:45, 22:00, 00:10.

**Larunbata:** 15:45, 17:45, 20:45, 22:00, 00:10.

**Igandea:** 15:45, 17:45, 20:45, 22:00, 00:10.

Igandea: 15:45, 17:45, 20:45, 22:00.

**Se armó el Belén**  
Ostirala: 15:45, 18:30.  
Larunbata: 15:45, 18:30.  
Igandea: 15:45, 18:35.

**Saw VIII**  
Ostirala: 23:50.  
Larunbata: 23:50.

**Igandea:** 20:35, 22:55.

**Ostirala:** 16:05, 19:40, 22:10, 00:40.

**Larunbata:** 16:05, 19:40, 22:10, 00:40.

**Igandea:** 16:05, 19:40, 22:10.



### LABURPENA

### The Square (JBGA)

**Zuzendariak eta gidioa:** Ruben Östlund. **Herr.:** Suedia (2017).

**Ekoizpena:** Erik Hemmendorff. **Argazkia:** Fredrik Wenzel.

**Aktoreak:** Claes Bang, Elisabeth Moss, Dominic West, Terry Notary eta Christopher Læssø. **Iraupena:** 142 minutu.

## Gaur egungo balioei kritika

Christian aita dibortziatua da, eta gustuko du denbora bi seme-alabekin ematea. Programatzailea da Stockholmeko arte garaikideko museo batean; auto elektrikoa duen eta kausa gizatiar handiak babesten dituen pertsona da.

Hurrengo erakusketa prestatzen ari da: *The Square*. Bisitariak altruismora bultzatzen dituen eta beren kideekiko dituzten betebeharrak gogorarazten dizkien instalazio bat da.

Baina batzuetan zaila da norberaren balioei jarraikiz bizitzea. Christiani eskuko telefonoa lapurtuko diote, baina bere erreakzioa ez dator bat bere filosofiarekin.

Gainera, komunikazio enpresa bat kontratatua du erakusketa berria sustatzeko. Enpresa horrek ekintza ikusgarria prestatu du, zeresan handia eta kritika ugari eragiten dituena.

Hau guztiagatik, krisi existenzial batean murgilduko da Christian.

*The Square* filma drama satirikoa da. Gaur egungo gizarteari kritika egiten dio eta honen barruan, komunitatearen zentzua, balio morala eta pertsonen egozentrismoa aztertzen dira.

Filmak Urrezko Palmorria lortu zuen Canneseko zinema jaialdian.

Jatorrizko bertsoan eskainiko da filma eta gaztelerazko azpititulua izango ditu.



EGUBERRIETAKO KANPAINA

LASARTE-ORIA



Lortu  
EGUBERRIETAKO  
SORTA  
ATERPEAKO  
establezimenduetan!

Multiópticas <b>LASARTE</b>	ISU leihoak
<b>OLMI</b> mertzeria	<b>MAY</b> ile-apaindegia
<b>MARBELL</b> ile-apaindegia	<b>ADATS</b> orraztegia
<b>ORMAZABAL</b> loradenda	<b>KATTAGORRI</b> jolas
<b>MABEL</b> moda	<b>CLOVER</b> erreformak
<b>SANTANA</b> informatika	<b>KAIZEN</b> altzari eta dekorazioa
<b>MILLA</b> finken administrazioa	<b>MAYA</b> lenteria
<b>ALCAR</b> leihoak	<b>OLA</b> markogintza
<b>OIHANA</b> estetika	<b>BUENETXEA</b> kafetegi-taberna
<b>BEA</b> ile-apaindegia	<b>URRUZOLA</b> mertzeria
<b>ARREGUI</b> elektrizitatea	<b>ETXARRI</b> argazkiak
<b>ORBELA</b> ekodenda	<b>LEDER</b> oinetakoak
<b>LIZARRI</b> optika	<b>LASARTE</b> parafarmazia
<b>ABREU</b> bazarra	<b>HALCÓN</b> bidaiak
<b>ANA</b> gizonezkoen ile-apaindegia	<b>CHRISTIAN</b> estilistak
<b>ITURBE</b> zapata-denda	<b>LA PETITE</b> estilistak
<b>SUKOA</b> burdindegia	<b>BIDEO LAGUNAK</b>
<b>MARIAN OLAIZOLA</b> ile-apaindegia	<b>TXEMA</b> taberna
<b>NOGUÉS</b> moda	<b>AMALUR</b> ziberlokutorioa
<b>ALBA</b> moda	<b>ARKUPE</b> taberna




# Osasun gida 2017

Zure osasuna, esku onenetan



Hortz klinikak

R.P.S: 24/15



### Urdaneta hortz-klinika

- Haurrentzako eta helduentzako ortodontzia
- Odontologia orokorra
- Periodontzia
- Hortz protesiak
- Implanteak
- Aho kirurgia

Pablo Mutiozabal 2, 1. bulegoa 9 • Lasarte-Oria  
Tel.: 943 36 60 79  
Mugikor eta whatsapp-a: 663 75 15 15

R.P.S: 233/13



- Lehenengo kontsulta eta diagnostikoa doan
- Zure aurrekontuari egokitutako tratamenduak
- Doako urgentziarako zerbitzua gure pazienteentzat
- Errehabilitazioetan espezialistak
- Odontologia etikoa

Ola kalea 10, Lasarte-Oria  
943 366 377  
www.dentalaldaz.com

Txintxarri publizitatea:

943 37 14 48 (106)  
646 82 44 66

publizitatea@ttakun.eus

txintxarri